

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria Iruñeko katedralaren fatxada zaharberritua irekitzeko ekitaldira joan da

Obrak Caja Madrid Fundazioak, Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak eta artzapezpikutzak adostu duten hitzarmenari esker egin dira

Viernes, 23 de septiembre de 2011

Yolanda Barcina Angulo Nafarroako Lehendakaria izan da gaur arratsaldean [Iruñeko Andre Maria Erreginaren katedralaren](#) fatxadaren irekiera ekitaldian, hura zaharberritzeko egin diren obrak amaitu ondoren.

Ekitaldian obra bultzatu duen hitzarmena adostu duten erakundeetako goi-ordezkariek izan dira: Pío Díaz de Tuesta Vázquez Caja Madrid fundazioko programen zuzendaria, Enrique Maya Miranda Iruñeko alkatea eta Francisco Pérez González Iruñeko artzapezpiku eta Tuterako apezpikua.

Mintzaldian, Barcina Lehendakariak gogorarazi du katedralean gordeta dagoen Andre Maria Erreginaren irudiaren aurrean izendatu zirela Nafarroako erregeak eta tenpluan bertan lurperatu zirela. "Hemen ordezkariak dituzten instituzio guztiak elkarlanean aritu gara gure nortasuna eta gure taldeko identitatea zehazten duten ondare historikoari eta beste garai batzuetako adierazpen artistikoei eusteko herritarrek agertzen duten interesari erantzuna emateko", esan du Nafarroako Lehendakariak.

Lehendakariak Nafarroako Gobernuak Foru Erkidegoko multzo historiko-monumentalak zaharberritzeko egin duen ahalegina aipatu du: Artaxoan, Fiteron, Lizarran, Martzillan, Uxuen, Corellan, Tuteran eta Donejakue bidean; horiek "kulturaren bultzatzailea den erkidego gisa gure



Iruñeko katedralaren fatxada zaharberritua. Pío Díaz de Tuesta, Pérez González artzapezpikua, Maya alkatea, Barcina Lehendakaria eta Sánchez de Muniáin kontseilaria proiektuari buruzko azalpenak entzuten



entzutea sendotu eta historian eta artean interesa duten bisitariarentzako helburu gisa dugun xarma indartzen dute".

Iruñeko katedralaren fatxada zaharberriua: katedraleko kabildoa, agintariak eta irekiera ekitaldira gonbidaturikoak

Eskerrak eman dizkie zaharberritzea gauzatzen lagundu duten erakundeei, batez ere Caja Madrid fundazioari. Horri buruz esan du "konpromisoari eta korporazioaren ardura sozialari eutsi diola enplegua eta aberastasuna sortuz obra handi hau finantzatzearen bidez".

Zaharberritzearen zenbatekoa 4,3 milioi euro izan dira guztira. Horietatik 1,26 milioi euro proiektua egin eta obrak zuzentzeko izan dira, eta Caja Madrid fundazioak finantzatu du. Obra osoaren kostua 3,03 milioi eurokoa izan da. Horietatik 1,43 milioi euro kreditu erakundeak eman ditu, 900.000 euro Nafarroako Gobernuak, 400.000 euro Iruñeko Udalak eta 300.000 euro Iruñeko Artzapezpikutzak.

[Iruñeko katedralaren fatxada](#) Ventura Rodríguez arkitektoarena da (1783). Hari eskatu zitzaion egiteko fatxada erromanikoa ordezkatzeko aldera, 1390ean eraikina erori zenean zutik geratu baitzen. Ventura Rodríguezen obraren estiloa neoklasikoa da eta duela berrehun urtetik eztabaidarako arrazoi izan da eraikin gotikoaren aurrealdea izan duelako. Horixe gogoratu du Barcina Lehendakarak mintzaldian, nahiz eta "egile berriek Ventura Rodríguezen azken obrarik garrantzitsuena dela, XVIII. mendeko arkitekto handienaren obrarik garrantzitsuena dela esan; gainera, Nafarroa harro dago horretaz".

Zaharberritzeko proiektuak hiru alderdi nagusi landu ditu: euri urak kanporatzea teilatuetan eta erlaitzetan, paramentuak garbitzea eta harriari egindako kalteak konpontzea. Euri urak kanporatzeko berunezko babesak jarri dira, garbiketa egitean harriaren lantzea eta patina kontserbatu dira eta oso hondatuta zeuden elementu batzuk jatorrizko eraikineko harriaz ordezkatu dira. Gainera, kanpaiak berritu eta horien kanpai-etxeak konpondu dira, erlojuen polikromia leheneratu da eta eraikinaren multzoko argiak eta seinaleak hobetu dira. Zaharberritzeak eraikinaren egitura hobeto ezagutzeko balio izan du, eta, kasuren batean, katedral erromanikoa gotikoa izatera pasatzean hartutako irtenbide arkitektonikoak azaltzeko aukera eman du.

Obrak amaitu ondoren, kanpai-jolearen etxea zenaren barruan, katedralaren fabrika-gela jarri dute Katedraleko Museoaren beste zati bat izan dadin.